



# Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren (FCO2- ren) memoria

2024KO URTARRILA

EGILEA: GIPUZKOAKO KLIMA ALDAKETAREN FUNDAZIOA, NATURKLIMA

## Aurkibidea

1. Aurrekariak eta xedea .....	2
2. Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren (FCO <sub>2</sub> -ren) adierazle orokorrak .....	2
3. 2023an erregistratutako konpentsazioak .....	2
3.2. Karbono-aztarna konpentsatuei buruzko informazioa .....	4
4. Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren (FCO <sub>2</sub> -ren) konpentsazio-proiektuen egoera .....	7
5. Eranskinak.....	10
5.1. I. eranskina.....	10
5.2. II. eranskina.....	11

## Taulen aurkibidea

1. taula. 2023an konpentsatutako karbono-aztarnen banaketa jarduera-sektorearen arabera.....	3
2. taula. 2023an konpentsatutako aztarnen kopurua aztarnaren kalkulu-urte bakoitzeko.....	5
3. taula. Kontabilizatutako isuriak urtearen eta irismen-moten arabera, eta 2023an urte bakoitzeko konpentsatutako isuriak. ....	6
4. taula. Kontabilizatutako eta konpentsatutako isuriak irismenen arabera eta jarduera-sektoreen arabera.....	6
5. taula. 2023an FCO <sub>2</sub> -n egindako konpentsazioen zerrenda. ....	10

## Irudien aurkibidea

1. irudia. 2023an konpentsatutako aztarnen ehunekoa enpresaren tamainaren arabera. ....	4
2. irudia. Isuri konpentsatuen ehunekoa sektorearen arabera.....	7
3. irudia. Mikrohezeguneak Lasain-Gogortegin. (a) 2. putzuaren eremua jarduketaren aurretik eta (b) 2. putzua, eraikita eta urarekin. ....	8
4. irudia. (a) Hondakinak kentzea eta (b) Molinaoko errearen inguruan zuhaitzak landatzea.....	9

## 1. Aurrekariak eta xedea

2022aren hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eredu bat jarri zuen martxan –Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioaren (aurrerantzean, Naturklima) bidez– eragile publikoei eta enpresa-sektoreari klima-aldaketaren aurkako borrokan parte hartzeko aukera emateko asmoz.

Horrela sortu zen Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtza (FCO<sub>2</sub>). Tresna boluntario horren bidez, beren isuriak aitortzera behartuta ez dauden erakundeek konpentsatu egin ditzakete beren berotegi-efektuko gasen isuriak. Azken helburua da 2050erako 2005ean baino % 80 isuri gutxiago dituen lurralde bat lortzen laguntzea, Klima Aldaketaren Kontra Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategian (Gipuzkoa Klima 2050<sup>1</sup>) ezartzen den bezala, karbono-hustulekuetan xurgatuta arindu ezin diren isuriak konpentsatuz (guztizko isurien % 10 inguru). Horrenbestez, FCO<sub>2</sub>-ren tresnak arintzen, CO<sub>2</sub>-a xurgatzeko ahalmena handitzen eta Gipuzkoaren erresilientzia areagotzen laguntzen du.

FCO<sub>2</sub>-k epe labur, ertain eta luzean izango duen bilakaeraren jarraipen zorrotza egiteko, adierazle-sistema bat definitu dugu erakundeek karbono-aztarna erregistratzeari dagokionez, baita gauzatutako konpentsazio-proiektuen (arintzea eta egokitzea) eta xurgapen-proiektuen ingurukoa ere; eta, azkenik, egokitzapenaren, erresilientziaren eta funtzio-aniztasunaren inguruko adierazle batzuk ere zehaztu ditugu. Txosten honen xedea da 2023ko ekitaldian FCO<sub>2</sub>-n izandako jarduerari buruzko informazioa biltzea. II. eranskinean, definitutako adierazle guztiak eta dagozkien balioak jaso ditugu.

## 2. Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtzaren (FCO<sub>2</sub>-ren) adierazle orokorrak

2023an, FCO<sub>2</sub>-ri esker:

- **40** karbono-aztarna berri konpentsatu dira
- **39** erakundek konpentsatu dute beren aztarna
- **10.206,85 tCO<sub>2</sub>** konpentsatu dira
- 2 proiektu egin dira 2022ko ekitaldian jasotako dohaintzekin

Oro har, azken bi urteetan:

- 51 karbono-aztarna konpentsatu dira
- 39 erakunderi dagozkienak

## 3. 2023an erregistratutako konpentsazioak

### 3.1. Erakundeei buruzko informazioa

---

<sup>1</sup> 18/2018 Foru Dekretua, maiatzaren 29koa, Klima Aldaketaren Kontra Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050 - Gipuzkoa Klima 2050 onesten duena.

## Erakundeak eta erakunde bakoitzeko konpentsazioak

Jasotako eta berrikusitako eskaeren emaitza dira inskripzioak. Erakunde batek urte desberdinetako edo zenbait ekitalditako karbono-aztarna konpentsatzea erabaki dezake; beraz, erakundeen kopurua txikiagoa da aztarna konpentsatuena baino.

2023an zehar, **39 erakunde desberdinen 40 karbono-aztarna** erregistratu eta konpentsatu dira guztira, osorik nahiz partzialki. Horrek esan nahi du **29 enpresa berri (+% 290) eta 30 karbono-aztarna gehiago izan direla 2023ko ekitaldiaren aldean**. Ekitaldi honetan, erakunde bakar batek konpentsatu ditu bi ekitaldi desberdinetako 2 karbono-aztarna. Gainera, erakunde batek 2022an konpentsatutako bere aztarnaren datuak osatu zituen, 3. irismeneko isuriak barnean hartuz.

Leialtzeari dagokionez, nabarmendu behar da 2022an zehar beren aztarna kalkulatu eta konpentsatu zuten enpresen % 100ek CO<sub>2</sub> Funtsean jarri zutela konfiantza isuriak konpentsatzeko.

Jardueraren arabera erakunde-motaren arabera, aztarnak konpentsatu dira 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN 2009) kodean jasotako 21 sektoreetako 13rentzat; hau da, 7 sektore berri sartu dira aurreko ekitalditik. Manufaktura-industria eta Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak nabarmentzen dira (7 aztarna ditu bakoitzak).

1. taula. 2023an konpentsatutako karbono-aztarnen banaketa jarduera-sektorearen arabera.


Jarduera-sektorea	2023an konpentsatutako karbono-aztarnen kopurua
F. Eraikuntza	5
C. Manufaktura-industria	7
G. Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	2
R. Jarduera artistikoak, jolasekoak eta entretenimendukoak	3
S. Beste zerbitzu batzuk	6
M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	7
E. Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	2
H. Garraioa eta biltegiatzea	2
I. Ostalaritza	2
J. Informazioa eta komunikazioa	1
N. Administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak	1
Q. Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak	1
U. Lurralde kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak	1

I. eranskinean, 2023an zehar beren karbono-aztarna CO<sub>2</sub> Funtsean konpentsatu duten erakundeen zerrenda kontsulta daiteke. Jarduera-sektorea eta aztarna konpentsatuaren urtea adierazita daude bertan.

### Erakundeen tamaina

Beren karbono-aztarna konpentsatu duten erakundeen tamainari dagokionez, ETEak dira nagusi (% 55 guztira). Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, talde hori osatzen duten kategorien igoera ikusten da: 3 puntuko igoera ‘enpresa txikia’ kategoriaren kasuan, eta 13 puntuko igoera ‘enpresa ertaina’ kategorian. Era berean, ‘mikroenpresak’ kategoriak kalkulaturako aztarnen kopurua handitu egin da aurreko ekitalditik (% 20tik % 28ra). Azkenik, ‘enpresa handia’ kategoriari dagozkion aztarnak jaitsi egin dira.

1. irudia. 2023an konpentsatutako aztarnen ehunekoa enpresaren tamainaren arabera.



### Erakundeen murrizketa-planak

Karbono-aztarna konpentsatu duten 39 erakundeetatik 33k murrizketa-planak dituzte.

#### 3.2. Karbono-aztarna konpentsatuei buruzko informazioa

Atal honetan, 2023ko ekitaldian konpentsatutako karbono-aztarnei buruzko informazioa zehazten da.

### Kalkulu-urtea

Azken lau urteetarako konpentsatu dira karbono-aztarnak: 2020, 2021, 2022 eta 2023. Aztarna konpentsatu gehienak (31) 2022ko ekitaldiko isuriei dagozkie; hau da, erakundearen karbono-aztarna kalkulatzeko azken urte osoko isuriei. Erakunde bakar batek konpentsatu zuen 2020ko ekitaldiari zegokion aztarna; 5 erakundek konpentsatu zuten 2021eko ekitaldiarena; eta 3 erakundek 2023koarena. 2023an konpentsatutako aztarnak 2023an egindako ekitaldi zehatzen konpentsazioei dagozkie; izan ere, erakunde-aztarna kalkulatzeko urte natural osoa hartuko beharko litzateke, beraz, ezin da kalkulatu hura itxi arte.

2. taula. 2023an konpentsatutako aztarnen kopurua aztarnaren kalkulu-urte bakoitzeko.

	2020	2021	2022	2023
<b>Karbono-aztarnen kop.</b>	1	5	31	3

### Irismenak

Funtsak, karbono-aztarna konpentsatzeko, isuriak 1.+2. irismenerako kalkulatzeko ezartzen du gutxieneko eskakizun gisa. Era berean, 3. irismena kalkulatzeko gomendatzen du; hau da, erakunde baten balio-katetik datozen eta erakundearen kontrolpean ez dauden isuriei dagokiena. Izan ere, nahitaezko eskakizuna ez bada ere, 3. irismenak guztizko isurien ehuneko handi bat hartzen du kasu askotan.

2023an konpentsatutako 40 karbono-aztarnetatik, 24 karbono-aztarna 1.+2. irismenari dagozkio, eta 16 erakundek 3. irismeneko isuriak ere jaso dituzte.

2. irismena 0 baliokoa duten karbono-aztarnak aztertuta, ondoriozta daiteke 40 erakundeetatik 16k jatorri berriztagarria bermatuta duten elektrizitate-hornidurak dituztela.

### Berotegi-efektuko gasen isuriak

2023an, erakundeek **10.206,85 tCO<sub>2</sub>** konpentsatu dituzte guztira kontabilizatutako **103.267,88 tCO<sub>2</sub>**-etatik; hau da, jakinarazitako isuri guztien % 9,88. Karbono-aztarnaren konpentsazio-ehunekoari dagokionez, guztira 25 aztarna konpentsatu dira osorik (isurien % 100).

Erregistratutako isurien datua orientagarria da, erakunde baten 3. irismeneko isuriak bat etor baitaitezke beste erakunde baten 1.+2. irismenekoekin. Bestalde, kontuan hartu behar da karbono-aztarna konpentsatu duten erakunde batzuek atzerrian ere badutela jarduera, eta, horregatik, isuri horiek guztiak ezin zaizkio esleitu erakundeak Gipuzkoan soilik duen jarduerari.

Irismenen arabera erregistratutako isuriek 3. irismeneko isurien aldeko banaketa erakusten dute. Azpimarratu behar da ez dela nahitaezkoa isuri horien berri ematea, eta

erakundeak definitutako zeharkako isuriei dagozkiela. Erakundeak, bere jardueraren arabera, isuri horiek karbono-aztarnan sartzea erabaki dezake (adibidez, langileek beren lanpostura egindako desplazamenduak, kanpoko bitartekoen bidez egindako bidaiak, lehengaien garraioa, hirugarrenen produktuen erabilera, etab.). Kalkulatutako isurien arabera, **3. irismeneko isuriak horien % 78,07 dira, eta 1.+2. irismenekoak, berriz, gainerako % 21,93a.**

3. taula. Kontabilizatutako isuriak urtearen eta irismen-moten arabera, eta 2023an urte bakoitzeko konpentsatutako isuriak.

KALKULU-URTEA	1.+2. IRISMENA (tCO <sub>2</sub> bal.)	3. IRISMENA (tCO <sub>2</sub> bal.)	ISURIAK GUZTIRA (tCO <sub>2</sub> bal.)	CO <sub>2</sub> TONA KONPENTSATUAK
2020	1,24		1,24	1,24
2021	1.876,67	2.256,61	4.133,28	411,04
2022	20.742,28	74.623,02	95.365,29	7.410,12
2023	27,67	3.740,39	3.768,06	2.384,45
<b>GUZTIRA</b>	<b>22.647,86</b>	<b>80.620,02</b>	<b>103.267,88</b>	<b>10.206,85</b>


4. taula. Kontabilizatutako eta konpentsatutako isuriak irismenen arabera eta jarduera-sektoreen arabera.

Sektorea	1.+2. irismena (tCO <sub>2</sub> bal.)	3. irismena (tCO <sub>2</sub> bal.)	Isuriak guztira	CO <sub>2</sub> tona konpentsatuak
F. Eraikuntza	8.729,33	6.890,48	15.619,81	1.988,59
C. Manufaktura-industria	1.753,34	67.540,91	69.294,25	3.999,99
G. Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	5.317,98		5.317,98	586,11
R. Jarduera artistikoak, jolasekoak eta entretenimendukoak	90,82	3.816,60	3.907,42	2.570,01
S. Beste zerbitzu batzuk	1.549,31	2.348,05	3.897,36	364,69
M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	72,47	5,04	77,51	77,51
E. Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	423,11		423,11	145,14
H. Garraioa eta biltegiatzea	3.894,02	17,80	3.911,82	198,29
I. Ostalaritza	786,31		786,31	244,21
J. Informazioa eta komunikazioa	6,01		6,01	6,01
N. Administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak	19,07		19,07	19,07

Q. Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetaoak	0,06	1,16	1,22	1,22
U. Lurraldez kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak	6,03		6,03	6,03

4. taulak irismenen arabera erakusten ditu 2023an jarduera-sektore desberdinetan kontentsatutako isuriak. Kontuan izan behar da 3. irismeneko isuriaren kalkulua borondatezkoa dela, eta, beraz, zifra horiek ez dutela informazio osoa ematen. 1.+2. irismeneko isuriak soilik kontuan hartuta, erregistratutako isuriei gehien laguntzen dieten 3 sektoreak Eraikuntza (% 38,54), Handizkako eta txikizkako merkataritza (% 23,48) eta Garraioa eta biltegiatzea (% 17,19) dira. Guztizko isuriak kontuan izanez gero, 3. irismena barnean hartuz, hauek dira jakinarazitako isuriei ekarpenik handiena egiten dioten sektoreak: Manufaktura-industria (% 67,10), Eraikuntza (% 15,13) eta Handizkako eta txikizkako merkataritza (% 5,15).

## 2. irudia. Isuri kontentsatuen ehunekoa sektorearen arabera.



Isuri kontentsatuei dagokienez, 5 sektorek kontentsatu dute jakinarazitako aztarnaren % 100. Azkenik, aztarna handienak jakinarazi dituzten sektoreek (Manufaktura-industriak eta Eraikuntzak) % 5,8 eta % 12,7 kontentsatu dute, hurrenez hurren.

## 4. Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funttsaren (FCO<sub>2</sub>) kontentsazio-proiektuen egoera

2023ko ekitaldian zehar, bi jarduketa egin dira aurreko ekitaldian jasotako dohaintzekin.



### Mikrohezeguneak sortzea Lasain-Gogortegi parajeon (Irun)

2023ko azaroan egindako lehen jarduketa izan zen Lasain-Gogortegi parajeko lurretan elkarren artean konektatutako lau mikrohezegune sortzea. Irungo udalari dagozkio lur horiek, eta Aiako Harria Parke Naturalaren eta Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremuaren barruan kokatuta daude.

Jarduketa horren bitartez, lurra prestatu eta iragazgaiztu zen, babes-hesia jarri zen, eta oinezkoen pasabideak egin ziren, baita faunarentzako salto-pasabideak ere.

Halako guneen xedea da mikroklima- eta mikrohabitat-babeslekua izatea anfibioentzat eta ornogabeentzat, baita espezie migratzaileen atsedenerako eta elikadurarako gunea ere, eta faunako nahiz florako espezieen desplazamendua erraztea.

Putzuak Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren bidez sortzeko jarduketa kokatzen da *MIKROKLIMA: mikrohezeguneen sarea klima-krisiaren aurrean* proiektuaren barruan. Proiektuaren helburua da mikrohezeguneetako prozesu naturalen jarraipen-sare bat sortzea klima-aldaketaren efektu potentzialak eta jatorri antropikoko beste alterazio batzuk monitorizatzeko, hezegune txikien mendeko espezieak kontserbatzen laguntzeko eta ekosistema naturalen erresilientzia handitzeko.

3. irudia. Mikrohezeguneak Lasain Gogortegin. (a) 2. putzuaren eremua jarduketaren aurretik eta (b) 2. putzua, eraikita eta urarekin.



### Molinaoko errearen berroneratze ekologikoa (Donostia)

Bigarren jarduketa honen bitartez erabilera ludikoko berdegune baten ingurumen-biziberritzea egin zen. Helburua zen ibarbasoa berreskuratzen laguntzea, ibaiertzeko landaredia-masa indartuko duten eta haren iraupena bermatuko duten espezieak landatuz. Zehazki, ibaiertzeko tokiko espezieak landatu ziren (*Alnus glutinosa*, *Fraxinus excelsior*, *Crataegus monogyna*, *Sambucus nigra*, *Cornus sanguinea*, *Woodwardia radicans*, *Prunus spinosa*).

Gunearen ingurumen-kalitatea berreskuratzeaz gain, espero da eremuko ekosisteman eta biodibertsitatean inpaktu positiboa sortzea, ekosistemak karbono-hustuleku gisa duen ahalmena hobetzea eta, azkenik, errearen luzetarako konektagarritasuna hobetzea eta, horrekin batera, baita lurraldeko azpiegitura berdearena ere.

4. irudia. (a) Hondakinak kentzea eta (b) Molinaoko erreka inguruan zuhaitzak landatzea.



## 5. Eranskinak

### 5.1. I. eranskina

5. taula. 2023an CO<sub>2</sub> Funtsean egindako konpentsazioen zerrenda.

ERAKUNDEA	SEKTOREA (EJSN 2009)	AZTARNA GUZTIZ NAHIZ PARTZIALKI KONPENSATUTAK O URTEA
Irisbond Crowdbonding, S.L.	M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	2021
EKOMODO SUSTAINABLE COMPANY, S.L.	C. Manufaktura-industria	2020, 2021
GabyL Gipuzkoa	G. Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	2022
Teknimap Energía y Medio Ambiente SL	M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	2022
Apellaniz y de Sosa SL	J. Informazioa eta komunikazioa	2022
Fundación Centro de Tecnologías de Interacción Visual y Comunicaciones Vicomtech	M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	2022
Gipuzkoa Basket Club KSA	R. Jarduera artistikoak, jolasekoak eta entrenimendukoak	2022
Gipuzkoako Enpresen Elkartea-ADEGI	S. Beste zerbitzu batzuk	2022
SALTO SYSTEMS	C. Manufaktura-industria	2022
KIROL SPORT SL	S. Beste zerbitzu batzuk	2023
UNIALCO SL	G. Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	2022
SINNPLE	M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	2022
DENOK ALAI SL	I. Ostalaritza	2022
OJMAR SA	C. Manufaktura-industria	2022
GISMA Taldea	M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	2022
Tratamientos GEURIA SA	E. Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	2022
Ondarreta mesas y sillas SL	C. Manufaktura-industria	2022
ELECTROTÉCNICA DEL URUMEA SL	F. Eraikuntza	2022

GIROA SAU.	F. Eraikuntza	2022
MONTAI PRODUKZIOAK SL	N. Administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak	2022
HABIC Klusterra	U. Lurraldez kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak	2022
Bilibin Koop. Elt. Txikia	S. Beste zerbitzu batzuk	2022
Plastigaur SA	C. Manufaktura-industria	2022
ASFALTIA SL	F. Eraikuntza	2022
Campezo Obras y Servicios SA	F. Eraikuntza	2022
EKIALDEBUS SL	H. Garraioa eta biltegiatzea	2022
SUCESORES DE URBISTONDO SL	I. Ostalaritza	2022
ARREGI ETXABE JUAN JOSE SA	S. Beste zerbitzu batzuk	2021
Donostiako Nazioarteko Zinemaldia	R. Jarduera artistikoak, jolasekoak eta entretenimendukoak	2023
Ecogras Recuperación y Reciclado SL	E. Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	2021
SUTARGI SAL	S. Beste zerbitzu batzuk	2022
ORMAK CONSTRUCCION SLU	F. Eraikuntza	2022
Lidia Fernandez Sánchez	Q. Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak	2022
KENECOGEST SL	M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	2022
Rotary International-Distrito 2202	S. Beste zerbitzu batzuk	2022
Tse Chun Li Chou	R. Jarduera artistikoak, jolasekoak eta entretenimendukoak	2023
Txita Txirindak SLU	H. Garraioa eta biltegiatzea	2021
EMAN	C. Manufaktura-industria	2022
Naturklima	M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	2022

## 5.2. II. eranskina

Adierazleak honela sailkatzen dira, ematen duten informazioaren arabera: aztarnen erregistroa (E), konpentsazio-proiektuak (KP), xurgapen-proiektuak (XP) eta egokitzapeneko, erresilientziako eta funtzio-aniztasuneko proiektuak (EEFP).

ADIERAZLEA	2020	2021	2022	2023
<b>KARBONO-AZTARNA KONPENTSATUAK URTEAREN ARABERA</b>				
Karbono-aztarna aurkeztuen kopurua			11	40
Karbono-aztarna konpentsatuen kopurua			10	40
Erakunde-kopurua			10	39
1.+2. irismeneko aztarnen kop.			6	24
1.+2. eta 3. irismeneko aztarnen kop.			4	16
1.+2. irismeneko isuriak (tCO <sub>2</sub> bal.)			13.278,16	2.2647,86
3. irismeneko isuriak (tCO <sub>2</sub> bal.)			22.441,08	80.620,02
Isuri konpentsatuak guztira (tCO <sub>2</sub> bal.)			11.270,64	10.206,85
Murrizketa-planak dituzten enpresen kop.			7	34
Batez besteko ehuneko konpentsatua			31,55	9,88
<b>KARBONO-AZTARNEI BURUZKO INFORMAZIOA KALKULU-URTEAREN ARABERA</b>				
Karbono-aztarnen kop.	3	12	31	3
1.+2. irismeneko aztarnen kop.	2	7	20	
1.+2. eta 3. irismeneko aztarnen kop.	1	5	11	3
1.+2. irismeneko isuriak (tCO <sub>2</sub> bal.)	6.825,24	8.270,83	20.742,27	27,67
3. irismeneko isuriak (tCO <sub>2</sub> bal.)	15.991	8.706,69	74.623,02	3.740,39
Isuri konpentsatuak guztira (tCO <sub>2</sub> bal.)	6.579,24	5.043,68	7.410,12	2.384,45
Batez besteko ehuneko konpentsatua		20,71	7,77	63,28
Karbono-aztarnen kopurua sektore bakoitzeko EJSN kodearen arabera	F(2), C(1)	C(3), G(2), R(1), S(2), M(2), E(1), H(1)	C(5), E(1), F(5), G(2), H(1), I(2), J(1), M(6), N(1), Q(1), R(2), S(4), U(1)	R(2), S(1)
<b>KONPENTSAZIO-PROIEKTUAK</b>				
Egindako konpentsazio-proiektuen kopurua guztira			2	2
Egindako jarduketa-motak: su hartutako eremua basoberritzea (SB); degradatutako eremuak berreskuratzea (DE); lurzorua erabilerak aldatzea (LE); eta ekonomia zirkularra (EZ).			2 (1 SB, 1 EZ)	2 (1 DE, 1 LE)

Proiektuen iraupen-aldia (urteak)			30 urte	
Konpentsazio-proiektuen inbertsioa guztira (€)			74.892,23	17.576,39
Jarduketaren azalera osoa (ha)			20	9,52
Landa-ingurunean/Natura-ingurunean leheneratutako azalera (ha)			20 ha natura-ingurune	9,52 ha natura-ingurune
Hiri-ingurunean leheneratutako azalera (ha)				
Konpentsazio-proiektuak egin diren udalerrien kopurua			2	2
Zuzenean edo zeharka konpentsazio-proiektuak gauzatzearen ondorioz sortutako erabilera publikoko lurzorua (ha).			0	0
<b>XURGAPEN-PROIEKTUAK (XP)</b>				
Xurgapen-osagaiarekin egindako proiektuen kopurua			1	
Kendutako xurgapenak (isuri konpentsatuak) guztira (tCO <sub>2</sub> bal.)			729	
MITERDen erregistratutako xurgapen-proiektuen kopurua			1	
MITERDen erregistratutako azalera (ha)			20	
MITERDeke ziurtatutako kendutako xurgapenak (isuri konpentsatuak) (tCO <sub>2</sub> bal./urte)				
Egindako proiektuen iraupen-aldian aurreikusitako xurgapenak (MITERD) (tCO <sub>2</sub> bal./urte)			729	
Proiektuen hasieran erabilgarri dauden xurgapenak (MITERD) (tCO <sub>2</sub> bal./urte)			133	
Urte-amaieran konpentsatzeko erabilgarri dauden xurgapenak (MITERD) (tCO <sub>2</sub> bal./urte)			0	
Berme-poltsari lagatako xurgapenak (MITERD) (tCO <sub>2</sub> bal./urte)			13	
Urte bakoitzean tonak konpentsatu edo laga dituzten xurgapen-proiektuen kopurua (MITERD)			9	
Erakunde bakoitzak konpentsatutako aztarnen kopurua (MITERD)			1	
Karbono-aztarna konpentsatuen kopurua guztira (MITERD)				
Karbono-aztarnaren konpentsazioaren ehunekoa (MITERD) (%)			% 6,4	

EGOKITZAPENeko, ERRESILIENTZIAKO ETA FUNTZIO-ANIZTASUNeko PROIEKTUAK (EEFP)				
Klima-aldaketara egokitzeko osagaia duten proiektuen kopurua			1	2
Proiektuetan sortutako azalera zuhaitzu berria (ha)				0,25
Birnaturalizatutako azalera, segida ekologikoan aurrerapena izan duena (ha)				0,25
Azalera hobetua (funtzio-aniztasunaren gehikuntza) Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarearen barruan (ha)				9,52
Lurzoruaren erabilera-aldaketak (ha)				
Landatutako ale autoktonoen kopurua				40
Landatutako espezieen kopurua			13	6
Xede zuhaitz-dentsitatea (ale-kopurua/ha)			1.100	160
Landa-inguruneko espezie autoktonoen ehunekoa (%)			100	100
Hiri-inguruneko espezie autoktonoen ehunekoa (%)				
Konektagarritasun ekologikoa hobetzeko proiektuen kopurua			1	2
Sortutako edo hobetutako hiri-azpiegitura berdearen azalera (ha)				
Azalera itzaltsua hiri-ingurunean (ha)				